BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5778

AGINDUA, 2011ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2011. urteari dagokion «Ixaka Lopez-Mendizabal» izeneko lehiaketa ebazten duena.

Unibertsitate aurreko irakasmailetan erabiltzeko asmoz argitaraturiko euskal ikasmaterial hoberenak saritze aldera, 2011ko uztailaren 20ko Aginduaren bidez «Ixaka Lopez-Mendizabal» lehiaketa deitu zen (EHAA, 2011ko irailaren 13koa). Bertan finkatutako hautapen-bideari jarraituz, zeregin horretarako berariaz izendatutako epaimahaiaren proposamena jaso dut eta, neure egin ostean, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– 2011ko «Ixaka Lopez-Mendizabal» sariak honako ikasmaterial hauei ematea:

a) Euskaraz irakasteko testu-libururik hoberenaren atalean, Erein argitaletxearen Matematika DBH 2 izeneko ikasmaterialari.

b) Euskara irakasteko testu-libururik hoberenaren atalean, Ibaizabal SA argitaletxearen Euskara eta Literatura. Komunikazioa (I) Batxilergoa izeneko ikasmaterialari.

c) Irakaslearen gidalibururik hoberenaren atalean, Ibaizabal SA argitaletxearen Ukimugi Haur Hezkuntza, 5 urte izeneko ikasmaterialari.

d) Oinarrizko irakurgairik hoberenaren atalean, Elkar-Ikastolen Elkartea argitaletxearen Urtxintxa 4 urte Ipuinak (1. hiruhilabetea) izeneko ikasmaterialari.

e) Ikasmaterial osagarririk hoberenaren atalean, Lanku Bertso Zerbitzuak SL argitaletxearen Gu ere bertsotan 1 izeneko ikasmaterialari.

2. artikulua.– Aurreko artikuluan zehaztutako ikasmaterial horietako bakoitzak bi mila eta zortziehun (2.800) euroko saria eta berariaz prestatutako oroigarria jasoko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar liteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion gelan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.